

## GIG 24

## MENDATAKO PUNTAKO FAILA-SISTEMA

BALIO INTRINTSEKOA: **3**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,13**

KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Mendatako puntako marearteko zabalguneari goitik begiratzuz gero, jauzi txikiko faila-sistema konjugatu bat ikusten da, eta failak erraz bereizten dira, haien ibilbidea definitzen duten kanalei esker.

Failak E-W eta NE-SW norabideetan nahiz tartekoetan daude, eta 2 m-rainoko jauziak eragin dituzte blokeen artean. Faila horiek Pirinioetako orogeniako konpresio-fasearekin daude lotuta, eta argi dago eskala handiko ia batere egiturarik ez egon arren, azalaramendua jauzi txikiko faila txiki askok zeharkatzen dutela. Gaur egun martxan dago Geoparkeko kostaldeko azalaramenduei eragiten dieten egituren denbora-segidari buruzko azterlan bat.

Kasu honetan, failak garbi-garbi hautematen dira; izan ere, higadura nagusiak 1-2 metroko zabalera-ko kanalak eragin ditu zabalgunean, zartaduren ibilbidea aprobetxatuz.

## NOLA BERTARATU

Itziariko gainean, N-634 errepidean, Itxaspe kanpinera joateko bidea hartu, eta hara iritsi baino lehen, Mendatagainako begiratokiko aparkalekura jo behar da. Aparkalekutik oinez jaits daiteke azalaramendura (15 minutu) edo begiratokira (10 minutu).

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ* edo Mendatagainako begiratokia.



Mendatako puntako faila-sistema, Mendatagainako begiratokitik ikusita.



**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**

X= 555466 m / Y= 4794090 m / Alt.= 0 m



Failetan zehar eraturiko kanaletako bat, gertutik ikusita.